

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5305

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 2koa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen duen agindu-proiektua.*

Agindu-proiektuaren xedea da agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren lanpostuetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa eta kudeaketa arautzea, zerbitzu horiek emateko hautagaien zerrendak egitea eta kudeatzea, eta hautatutako pertsonak izendatzea edo kontratatzea.

Ebazpen hau eman den egunera arte, honako izapide hauek egin dira:

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, testu juridiko arauemailearen proposamena idatzi aurretik, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak herritarren iritzia jasoko du kontsulta publikoan. Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 16. artikulua esleitutako eskumenen arabera, Hezkuntzako sailburuak aurretiazko kontsultaren agindua eman zuen 2025eko uztailaren 15ean. 2025eko uztailaren 15etik abuztuaren 8ra bitartean, etorkizuneko arauak ukitutako pertsonen eta erakundeen iritziak jaso ziren.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. artikulua arabera, Hezkuntzako sailburuak agindu bat eman zuen 2025eko irailaren 2an, agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua arabera, Hezkuntzako sailburuak agindu-proiektua aldeztu aurretik onartzeko agindua eman zuen 2025eko urriaren 14an.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikulua aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar da, baldin eta zuzenean eragiten badiete herritarren eskubide eta interes legitimoak, eta aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzeke prozedura arautzen duen agindu-proiektuari entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo zaio da hogeiei egun baliodunetz, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 16. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen duen agindu-proiektuari entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egitea, hogeiei (20) egun baliodunetz, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2025eko abenduaren 11, osteguna

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, agindu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Legegunean ([www.legegunea.euskadi.eus](http://www.legegunea.euskadi.eus)) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan ([www.euskadi.eus/iragarki-taula elektronikoa](http://www.euskadi.eus/iragarki-taula_elektronikoa)).

Hirugarrena.– Alegazioak Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan aurkeztu ahal izango dira, aurrez aurre (Zuzenean: herritarrei aurrez aurreko arreta emateko zerbitzua) eta elektronikoki (egoitza elektronikoa).

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 2a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,  
UNAI NIETO MARIJUAN.